

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2017ko URRIAREN 19an EGINIKO
OHIKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Iratxe Parro

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamazazpiko urriaren hemeretzian, hemeretzia direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea, Gentza Alamillo Udaeta jauna, dute buru eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/85) 46.b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK

Josu Artetxe

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2017ko irailaren 21ean eginiko ohiko bilkuraren akta.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- ASASAMek aurkeztutako adierazpena, Aiarako Kuadrillan osasun mentaleko baliabideak behar bezala kudeatzeari buruzkoa.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 5 (3 BILDU + 2 AIARA BATUZ)

Abstentzioak: 5 (EAJ-PNV)

Horrenbestez, mozioa onetsi da. Akta honen I. eranskin gisa agertzen da.

3.- EH BILDUK aurkeztutako mozioa, Gasteizko TMBko instalazioan hondakinak botatzeagatik tasa igotzearen kontrakoa.

Lauren jaunak (BILDU) esan du Gasteizko TMBko instalazioak Arabako Foru Aldundiaren finantzaketa jaso zuela, lurralde-mailako instalazio bat izan zedin. Alabaina, Gasteizko Udalak dauka instalazioa kudeatzeko eta erabakiak hartzeko eskumena, eta hori ulertezina da. Agian hemen aztertu behar genuke ea merkeagoa ateratzen zaigun Bizkaiko instalazioetara jotzea. Amaitzeko, Lauren jaunak esan du tasenigoera gehiegizkoa iruditzen zaiola.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du, Aldundiak azaldu duenez, hondakinak tratatzeko kostua tonako 92 eurokoa dela, etaigoera tonako 85 eurora artekoa izan dela. Horrenbestez, ez da erraza

justifikatzea; izan ere, instalazio hori lurralde osoko hondakinak kudeatzen ari bada eta tasak igotzen ez badituzte, kudeaketak sorrarazten duen galera bere gain hartu beharko dute. Hori horrela, bere taldeak proposatzen du igoera pixkanaka egin dadila; hartara, Udalak herritarrei kobratzen dizkien tasak ere pixkanaka egokituko dira.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) gehitu du sentsibilizazioa sendotu beharko dela; izan ere, hondakinak hobeto bereiziz gero, 30.000 euro inguru aurreztu ahal izango genituzke.

Iraida andreak (Aiara Batuz) esan du gaia aztertu dutela, baina beren iritzia eman aurretik azalpen teknikoak entzun nahi dituztela. Izan ere, eman diren argudioetako batzuk ez dute Aldundiaren erabakirik oinarrian, eta, hortaz, bere taldea abstenitu egingo da bozketetan, informazio gehiago eduki arte.

Gentza jaunak esan du, gaiari buruzko informazio dokumentatu gehiago heltzen bada, ingurumen-teknikariekin hitz egingo duela, azal dezaten.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da emaitza:

Aldeko botoak: 3 (BILDU)

Kontrako botoak: 5 (EAJ-PNV)

Abstentzioak: 2 (AIARA BATUZ)

Horrenbestez, mozioa ez da onetsi. Akta honen II. ERANSKIN gisa agertzen da

4.- EAJ-PNVren zuzenketa, EH BILDUK Gasteizko TMBko instalazioan hondakinak botatzeagatiko tasa igotzearen kontra aurkeztutako mozioari.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 5 (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 3 (BILDU)

Abstentzioak: 2 (AIARA BATUZ)

Horrenbestez, mozioa onetsi egin da; hau da:

“Gentza Alamillo Udaeta jaunak, Aiarako Udaleko EAJ-PNV udal-taldeko bozeramaileak, indarrean dagoen araudiaren babesean, EH BILDUREN mozioari ZUZENKETA hau aurkeztu dio, Gasteizko TMBko instalazioan hondakinak botatzeagatiko tasaren igoeraren harira.

ZUZENKETA

1.- Aiarako Udaleko Udalbatza bat dator tasek egokiak izan behar dutela eta kasu bakoitzean ematen diren zerbitzuen kostua estali behar dutela dioen printzipioarekin; hori horrela, kezkatuta dago Gasteizko TMBko instalaziora hondakinak botatzeagatiko tasa % 20 areagotzearekin, horrek zaborren udal-zerbitzuaren kostua nabarmen areagotuko baitu, kontsumo-prezioen gorakadaren gainetik oso.

2.- Aiarako Udaleko Udalbatzak aitortzen du beharrezkoa dela Arabako Lurralde Historikoko beste erakunde batzuekin leialtasunez kooperatzea eta lankidetzan aritzea, sortutako hondakinak modu egoki eta iraunkorrean kudeatzeko. Alabaina, horretarako beharrezkoa da prezio publikoak pixka bat

igotzea, behar adinako epean, urte bakar batean tasaren gorakada ez dadin horrenbestekoa izan erabiltzaileentzat.

3.- Aiarako Udaleko Udaltzako Gasteizko Udaleri eskatzen dio TMBko instalazioan hondakinak botatzeagatik tasak pixkana igo ditzala, horien benetako kostua estaltzen joateko eta, hala, 2018rako onesten den gorakada arintzeko lurraldeko gainerako udalerrientzat.

4.- Aiarako Udaleko Udaltzako lurralde-egituren bidezko kudeaketaren alde egiten du; horrek, kudeaketa hobetzeaz gain, sinergiak lortzea eta erabiltzaileentzako kostuak aurrezteko ahalbidetzen du. Ildo horretan, adierazten du Arabako Foru Aldundiak sustatutako Arabako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana definitzen eta ezartzen laguntzen jarraitzeko asmoa duela.

5.- Atzera botatzea, bidezkoa bada, Lantenoko Administrazio Batzako aurkeztutako alegazioa eta behin betiko onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udaleko aurrekontuko partaidetza Aiara udalerriko Administrazio Batzen artean banatzea arautzen duen ordenantza.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) aipatu du, Batzordean azaldu zen moduan, seguruenik denek uko egin behar izan diotela zerbaiti ordenantza hau onesteko ados jarri ahal izateko. Finantza-sistema berria da, eta ekitaldi osoa itxaron beharko dugu nola funtzionatzen duen ikusteko. Lantenoko Administrazio Batzaren eskaerari erantzuten badiogu, seguruenik beste batza batzuen interesak kaltetuko ditugu eta horiek ere kexatu egingo dira. Gehitu du argi dagoela batza txikien egoera hobetu egin dela, baina agian ez nahi beste, eta badirudi batza ertainek ez dutela halako onurarik izan.

Iratxe andreak (Aiara Batuz) aipatu du, bere taldeak esan zuen moduan, ulertzen dutela hasteko modu bat dela, eta etorkizunean berriro aztertu beharko dela; eta ideia berriak sortzen badira, horiek ere aztertu egin beharko dira.

Lauren jaunak (BILDU) esan du bere taldearen iritziz hau topagune bat dela, abiapuntu bat; garrantzitsua da onetsi egingo dela eta gero, denborarekin, berriro ordenantza aztertu eta egokitzat jotzen dena aldatuko da.

Ez da beste oharrik egin; beraz, gaia bozkatu dute. Hala, bertaratu diren guztiek aho batez onetsi dute.

IKUSI DA.- 2017ko uztailaren 20ko osoko bilkuran hartutako erabaki bidez, hasiera batean onetsi zen Aiarako Udaleko aurrekontuko partaidetza Aiara udalerriko administrazio-batzen artean banatzea arautzen duen ordenantza.

IKUSI DA.- Ordenantza jendaurrean jarri zela, 30 egun balioduneko epean, interesdunek egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkez zituzten; 2017ko abuztuaren 16an ALHAOn argitaratu zen (93. zk.).

IKUSI DA.- Irailaren 27an, jendaurreko epearen barnean, Lantenoko Administrazio Batzako alegazio bat aurkeztu zuela; horren bidez, Udaleri eskatu zion eginiko banaketa berriz aztertzeko, eta azaldu zuen, batza bakoitzak jasotzen duena alderatu ondoren, alde handia ikusi zela herritar gehien zituzten batzen eta gainerakoen artean. Horrenbestez, alegazioa egiteko arrazoia zen administrazio-batza guztiek herritarrei zerbitzu berdina eman behar dizkietela edo horretan saiatu behar dutela.

IKUSI DA.- Idazkari kontu-hartzaileak 2017ko urriaren 5ean eginiko txostena.

IKUSI DA.- Administrazio Batzekiko Harremanen Informazio Batzordeak 2017ko urriaren 10ean emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DIRA.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/85 Legea) 49. eta 70. artikulua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (urriaren 1eko 3/2015 Legea) VI. titulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen (2/2016 Legea) VI. titulua.

Bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 10), aho batez, hau **ERABAKI DUTE:**

Lehenengoa.- Atzera botatzea Lantenoko Administrazio Batzak aurkeztutako alegazioa, ordenantza idazteko erabilitako irizpideak Udaleko talde politiko guztien artean adostu dituztelako.

Bigarrena.- Behin betiko onestea Aiarako Udaleko aurrekontuko partaidetza Aiarako udalerriko administrazio-batzen artean banatzea arautzen duen ordenantza.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri ematea Lantenoko Administrazio Batzari, eta jakinaraztea berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokeela Udalari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzenean, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Gasteizko Epaitegiaren aurrean.

Laugarrena.- Ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitara dadila agintzea, denak jakinaren gainean egon daitezten.

6.- Hasiara batean onestea, bidezkoa bada, udalerriko administrazio-batzei obren eta teknikarien ordainsarien gastuak ordaintzeko emandako diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kide guztiek aho batez onetsi dute.

IKUSI DA.- Udalak beharrezkotzat jo duela ordenantza bat egitea udalerriko administrazio-batzei obren eta teknikarien ordainsarien gastuak ordaintzeko emandako diru-laguntzak arautzeko.

IKUSI DA.- Idazkari kontu-hartzaileak 2017ko urriaren 18an eginiko txostena.

IKUSI DA.- Administrazio Batzekiko Harremanen Informazio Batzordeak 2017ko urriaren 10ean emandako aldeko irizpena.

Bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 10), aho batez, hau **ERABAKI DUTE:**

Lehenengoa.- Hasiara batean onestea udalerriko administrazio-batzei obren eta teknikarien ordainsarien gastuak ordaintzeko emango zaizkien diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza.

Bigarrena.- Jendaurreko 30 egun baliioduneko epea irekitzea, erabaki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita, interesdunek egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzaten. Hasiera bateko onespeneraren inguruko alegaziorik aurkezten ez bada, hasiera batean onetsitako erabakia behin betikotzat jo eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

Hirugarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

7.- Aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioz organo kontu-hartzaileak Diruzaintzako gerakinaren erabilerari buruz egindako txostenaren berri ematea Udalbatzari.

IKUSI DA.- Beharrezkoa dela 2016. urteko likidaziotik atera den gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakina erabiltzea gastu-partidak sortzeko edo daudenak handitzeko, nahitaezkoak diren eta 2018. urteko aurrekontura itxaron ezin duten ordainketak egiteko.

IKUSI DA.- 2016ko urriaren 17ko idazkari kontu-hartzailearen txostena, gastuak gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatzeagatik egonkortasuna betetzearen ondorioei buruzkoa.

AINTZAT HARTU DIRA.- Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzko Foru Arauaren (abenduaren 13ko 38/2013 Foru Araua) 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan.

Udalbatza aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioz 2017ko urriaren 16an organo kontu-hartzaileak egin duen txostenaren, Diruzaintzako gerakinaren erabilerari buruzkoaren, jakinaren gainean geratu da.

8.- Aldatzea, bidezkoa bada, Diru Laguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina, 1.200,00 euroko diru-laguntza zuzen bat sartzeko Salbagoro elkartearentzat, "Los últimos pastores de Sierra Salvada" dokumentala ekoizteko gastuen zati bat ordaintzeko.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kide guztiek aho batez onetsi dute.

IKUSI DA.- 2017-2018ko Diru Laguntzen Plan Estrategikoa 2017ko maiatzaren 4ko osoko bilkuran onartu zela, Udalaren 2017ko aurrekontu orokorraren eranskin gisa.

AINTZAT HARTU DA.- I. eranskinean (Kultura- eta kirol-arloko diru-laguntzak) ez zegoela zehaztuta diru-laguntza izendunik Salbagoro irabazi asmorik gabeko elkartearentzat, "Los últimos pastores de Sierra Salvada" dokumentala ekoizteko.

AINTZAT HARTU DA.- Udalak elkarte horrekin lankidetzat-hitzarmen bat egiteko interesa duela; horren bidez, konpromisoa hartuko du elkarteari 1.200,00 euro emateko, 2017 ekitaldian dokumental hori egiten diruz laguntzeko.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Aldatzea 2017/2018ko Diru Laguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina (Kultura- eta kirol-arloko diru-laguntzak); hala, zortzigarren puntu hau gehituko da:

“8. Salbagoro elkartearentzako diru-laguntza, “Los últimos pastores de Sierra Salvada” izeneko dokumentala egin dezan, publikoari, oro har, abeltzaintza-jarduera hori ezagutarazteko”.

Bigarrena.- Diru-laguntzen lerro guztiak laburtzen dituen taulan 8 zenbakiko erregistro bat gehitzea, "Salbagoro elkartearentzako diru-laguntza: lankidetzeta-hitzarmena" izenekoa. Elkarte hori izango da diru-laguntzaren onuraduna, eta zehazki 1.200,00 euro jasoko ditu, 419.481.032 partidaren kargura.

9.- Onestea, bidezkoa bada, Udalbatzaren kreditu gehigarrien 7/2017 zenbakiko espedientea, kredituak aldatzekoa.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kide guztiek aho batez onetsi dute.

IKUSI DA.- Beharrezkoa dela 2016. urteko likidaziotik atera den gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakina erabiltzea gastu-partidak sortzeko, nahitaezkoak diren eta 2017. urteko aurrekontura itxaron ezin duten ordainketak egiteko. Horretarako, aplikazio batzuk zabaldu egingo dira eta beste batzuk sortu.

IKUSI DA.- Kontu-hartzaileak eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak Aldatzen duena) jasotakoari jarraituz (Arabako tokiko erakundeen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa). Txosten hori Udalbatzari erakutsi zaio kreditu-aldaketa honekin batera.

AINTZAT HARTU DA.- Honako hauetan xedatutakoa: Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko Foru Araua (otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua), Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen Errege Dekretua (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua) eta Toki-araubidearen oinarriak araupetzen dituen Legea (apirilaren 2ko 7/1985 Legea).

Udalbatzako kideek, aho batez, hau **ERABAKI DUTE**:

Lehenengoa.- Onestea jarraian zehaztutako kreditu gehigarriak:

PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEKOA (€)
231.422.000	TRANSFERENTZIA ARTZINIEGARI, BERTAKO EGUNEKO ARRETAKO LANDA ZENTROAN AIARAKO ERABILTZAILA BAT EDUKITZEAREN KOSTUAGATIK	1.150 €
342.609.000	OBRA TXIKIAK: IGERILEKUETAKO HONDARTZA-EREMUA IRAGAZGAIZTEA	17.152,56 €
419.481.032	SALBAGORORENTZAKO DIRU-LAGUNTZA: "LOS ÚLTIMOS PASTORES DE SIERRA SALVADA" DOKUMENTALA	1.200 €

GUZTIRA: 19.502,56 €

Zenbateko hori jarraian zerrendatzen diren baliabideekin finantzatu da; beraz, espedientea orekatuta dago eta ez da defizitrik sortu:

A. Areagotu beharreko diru-sarrerren partidak edo erabili beharreko Diruzaintzako gerakina:

<u>Diru-sarrerren partida</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Zenbatekoa (€)</u>
87001	DIRUZAINZAKO GERAKINA, GASTU OROKORRETARAKO	: 19.502,56 €
	GUZTIRA	: 19.502,56 €

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbateko osoa horiek finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrera guztien parekoa da.

Bigarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, eta espedientea hau jendaurrean jartzea, 15 egun baliodunetz, interesdunek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik egon ezean, erabaki hau behin betikotzat jotzea. Erreklamaziorik badago, beste erabaki bat hartu beharko da, horiek onartu edo ukatuz.

Laugarrena.- Erabakia behin betikotzat jotzea, arauak ezarritako moduan eta epean.

- **Aztergaien zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, udalburuak beste puntu bat zerrendan sartzeko proposatu du, Eusko Jaurlaritzari farmazia-botikin bat jartzeko baimena eskatzeari buruzkoa (Luiaondon, erabilera anitzeko eraikinaren ondoan birgaitu den eraikinean).**

Lehenik eta behin, aztergaien zerrendatik kanpoko puntu hau bertan sartzeko premia bozkatu da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute; hortaz, hurrengo puntua bozkatzeari ekin diote:

10.- Eusko Jaurlaritzari baimena eskatzea farmazia-botikin bat jartzeko Luiaondoko 3. poligonoko 1333 partzelan.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kide guztiek aho batez onetsi dute.

IKUSI DA.- Udalak “Txabola farmazia-botikin bihurtzeko birgaitze-lanak” egin dituela Luiandoko 3. poligonoko 1333 katastro-partzelan.

IKUSI DA.- 2017ko ekainaren 17an aurkeztu zuela obra-amaiera obra zuzendu duen teknikariak, eta enpresa eraikitzaileak ordaindu duela.

AINTZAT HARTU DA.- Jarduera-espedientea izapidetze-prozesuan dagoela, aldez aurreko jakinarazpena behar duen jarduera sailkatuaren modalitatearen bitartez, bat etorri aplikatu beharreko araudian ezarritakoarekin.

AINTZAT HARTU DA.- Azaroaren 28ko Eusko Jaurlaritzaren 500/1995 Dekretuak (botikinak jardunean jartzeko baimen, baldintza eta jardunbiderako erregimena ezartzeko dena) ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzak eman behar duela botikina jartzeko baimena, Udalak eskatuta. Horrez gain, botikina jartzeko edo sortzeko baimena eman ondoren, horren funtzionamendua baimendu behar du, botikinaren kudeaketaz arduratuko den farmazialariak eskatuta. Bi baimen horiek lortuta, botikina jendearentzat ireki ahal izango da.

AINTZAT HARTU DA.- Luiaondo herriaren kokapen geografikoa eta mediku-kontsultategi bat duela gertu; horrenbestez, egokitzat jotzen da botikin bat jartzea herri horretan.

HAU GERTATU DA.- Aipatutako 500/1995 Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, farmazia-bulegoa duten 800 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, botikinek lotura izan behar dute farmazia-bulego horrekin.

HAU GERTATU DA.- Aiara udalerrian farmazia-bulego bakarra dago, Arespalditzan, eta J. E. C. G. jaunarena da (82 zenbakiko farmazia-bulegoaren titularra; elkargokide-zenbakia: 1.015).

Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 10), aho batez, hau **ERABAKI DUTE** osoko bilkuran:

Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzaren Farmaziako Zuzendaritzari baimena eskatzea farmazia-botikin bat jartzeko Luiaondoko 3. poligonoko 1333 katastro-partzelan.

Bigarrena.- Erabaki hau eta Eusko Jaurlaritzaren 500/1995 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritako dokumentazioa igortzea, botikin hori jartzeko baimena eman dadin.

- **Aztergaien zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, udalburuak proposatu du beste puntu bat sartzea aztergaien zerrendan, zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantzaren II. eranskinaren aldaketa onesteari buruzkoa.**

Lehenik eta behin, aztergaien zerrendatik kanpoko puntu hau bertan sartzeko premia bozkatu da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute; hortaz, hurrengo puntua bozkatzeari ekin diote:

11.- Onestea, bidezkoa bada, zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantzaren II. eranskinaren aldaketa.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kide guztiek aho batez onetsi dute.

IKUSI DA.- Udalbatzak zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantzaren II. eranskina aldatzeko beharra ikusi duela.

Bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 10), aho batez, hau **ERABAKI DUTE**:

Lehenengoa.- Hasiara batean onestea zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantzaren honako aldaketa hauek:

1.- Urtean 15 orduko ikastaroak emateagatiko tarifak erantsi dira II. eranskinean, baita dagokion hobaridun tarifa ere; honela geratu da:

II. ERANSKINA

KULTURA ETA KIROL ARLOAK ANTOLATUTAKO IKASTARO ETA TAILERRAK EGITEKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA.

TARIFA:

1.- Tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, zenbateko hauek hartuko dira kontuan:

- Urtean 15 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 18,75 €.
- Urtean 30 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 37,50 €.
- Urtean 45 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 56,25 €.
- Urtean 60 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 75,00 €.
- Urtean 98 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 125,50 €.

2.- Tasak osorik sortuko dira Udalak ematea erabakitzen duen ikastaro bakoitza hasi aurretik. Ikastaro bat emateko, udalerrian erroldatutako 8 pertsonak egon beharko dute izena emanda, gutxienez.

3.- Tasari dagokion zenbatekoa banku-helbideratze bidez ordainduko da, erabiltzaileek (edo, adingabeak direnean, haien guraso edo legezko zaintzaileek) eskaeran adierazitako kontu-zenbakian.

Ordainketa bakarra egingo da eta ez da itzuliko ikastaroa hasi ondoren.

4.- Leku libreak badaude, ikasle berriek hasi ahal izango dute edozein ikastarotan, baita dagoeneko hasita badago ere. Kasu horretan matrikularen zenbateko osoa ordaindu beharko dute, edo erdia, ikasturteko bigarren lauhilekoan hasten badira.

HOBARIAK:

1.- Aurreko ataleko lehen puntuan zehaztutako tasak ordaintzeko hobaria emango zaie langabezia dardenei edo ikasle-txartela dutenei.

Langabezia- edo ikasle-txartela aurkeztu beharko da matrikula formalizatzeko unean.

Hauek izango dira hobariarekin ordaindu beharreko tasak:

- Urtean 15 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 16,50 €.
- Urtean 30 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 33,00 €.
- Urtean 45 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 49,50 €.

- Urtean 60 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 66,00 €.
- Urtean 98 orduko ikastaroak emateagatik: urtean 107,80 €.

EZ ORDAINTZEA:

Tasa horiek ez ordaintzeagatik sortutako zorrak premiamendu-prozedura administratiboaren bidez eskatuko dira.

AZKEN XEDAPENA:

Kultura eta Kirol Arloak antolatutako ikastaro eta tailerrak egiteko zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen II. eranskin hau argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta hala egongo da aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte.

EGINBIDEA.-

Udal honek 2017ko ekainaren 22ko ohiko bilkuran onetsi zuen eranskin hau sartzea zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantzaren ondoren, iragarki-taulan eta 2017ko uztailaren 10eko ALHAOn (78. zk.) argitaratu zen 30 egunez. Behin betiko onetsita geratu zen 2017ko abuztuaren 15ean. Indarrean sartuko da ALHAOn osorik argitaratzen den egunean, eta indarrean jarraituko du harik eta aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte.

Udalak 2017ko urriaren 19ko ohiko bilkuran onetsi zuen hasiera batean eranskin honen aldaketa. Ondoren, iragarki-taulan eta 2017ko _____aren _____(e)ko ALHAOn (_____. zk.) argitaratu zen 30 egunez. Behin betiko onetsita geratu zen 2017ko _____ren _____(e)(a)n. Indarrean sartuko da ALHAOn osorik argitaratzen den egunean, eta indarrean jarraituko du harik eta aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte”.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzeko 30 egun balioduneko epea irekitzea, erabakia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek aurkeztu ahal izango ditu bidezkotzat jotzen dituen alegazioak, eta Udalbatzak aztertuko ditu horiek, bidezkoa bada behin betiko onesteko. Hasierako onespeneraren inguruko alegaziorik aurkezten ez bada, hasiera batean onetsitako erabakia behin betikotzat jo eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

Hirugarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ordenantzaren aldaketa hauek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean sartuko dira indarrean”.

- **Aztergaien zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, udalburuak proposatu du beste puntu bat sartzea aztergaien zerrendan, aurreko puntuan aipatutako ordenantzaren III. eranskina gehitzeari buruzkoa (Kultur Arloak urtean zehar antolatutako Jolas Txokoetan eta haur eta gazteentzako gaikako tailerretan parte hartzeko zerbitzua emateagatiko tasa).**

Nerea andreak (BILDU) esan du egokiagoa litzatekeela batzordeetan eztabaidatzeko denbora izan balute. Bere taldea ez dago eranskina onestearen kontra, baina eskatzen dute honelako gaiak

dagokion informazio-batzordean eztabaida daitezela. Gehitu du erantzukizun politikoagatik premia onetsiko dutela eta gaia lantzeari ekingo diotela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du hausnarketa aintzat hartuko dutela eta, hemendik aurrera, saiatuko direla osoko bilkuretan hain premiazkoak diren kontuak ez sartzen.

Iraida andreak (Aiara Batuz) esan du bere taldea bat datorrela Nerea andreak adierazitakoarekin; izan ere, osoko bilkura guztietan sartu behar izaten dituzte aztergaien zerrendatik kanpoko puntuak. Gobernu Taldeari eskatu dio gauzak hobeto aurreikusteko eta osoko bilkuran bozkatu behar dutena alde aurretik batzordeetan lantzeko.

Beste adierazpenik egin ez dutenez, aztergaien zerrendatik kanpoko puntu hau bertan sartzeko premia bozkatu da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute; hortaz, hurrengo puntua bozkatzeari ekin diote:

12.- Onestea, bidezkoa bada, zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantzan III. eranskin bat gehitzea (Kultur Arloak urtean zehar antolatutako Jolas Txokoetan eta haur eta gazteentzako gaikako tailerretan parte hartzeko zerbitzua emateagatiko tasa).

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kide guztiek aho batez onetsi dute.

IKUSI DA.- Udalbatzak Zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantza aldatzeko beharra ikusi duela. Hain zuzen ere, egokitzat jotzen du beste eranskin bat gehitzea, Kultura Arloak urte osoan zehar antolatzen dituen Jolas Txokoak programen eta haur eta gazteentzako gaikako tailerren bidez Udalak biltzen dituen tasak arautzeko.

Bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10), aho batez, hau **ERABAKI DUTE**:

Lehenengoa.- Hasiera batean onestea zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatiko eta kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantzan III. eranskin bat gehitzea (Kultur Arloak urtean zehar antolatutako Jolas Txokoetan eta haur eta gazteentzako gaikako tailerretan parte hartzeko zerbitzua emateagatiko tasa); honela idatzita geratuko da:

KULTUR ARLOAK URTEAN ZEHAR ANTOLATUTAKO JOLAS TXOKOETAN ETA HAUR ETA GAZTEENTZAKO GAIKAKO TAILERRETAN PARTE HARTZEKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA.

TARIFAK:

1.- JOLAS TXOKOETAN PARTE HARTZEA

Tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, zenbateko hauek hartuko dira kontuan:

- *ORDUKO 1,2 €, haur bakoitzeko.*

Tasa kalkulatzeko, kontuan hartuko da Udalak urteko une bakoitzean programatutako jarduerak irauten duen egun guztietako orduen guztizko kopurua, kontuan hartu gabe haurra Jolas Txokoak programak irauten duen egun guztietan bertaratu daitekeen edo ez.

2.- HAUR ETA GAZTEENTZAKO GAIKAKO TAILERRETAN PARTE HARTZEA

Tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, zenbateko hauek hartuko dira kontuan:

- *ORDUKO 1,6 €, haur bakoitzeko.*

Tasa kalkulatzeko, kontuan hartuko da Udalak urteko une bakoitzean programatutako jarduerak irauten duen egun guztietako orduen guztizko kopurua, kontuan hartu gabe haurra edo gaztea kasuan-kasuan dagokion tailerrak irauten duen egun guztietan bertaratu daitekeen edo ez.

3.- *Tasak osorik sortuko dira Udalak antolatzea erabakitzen duen programa bakoitza hasi aurretik. Programa bat gauzatzeko, udalerrian erroldatutako 8 pertsonak egon beharko dute izena emanda, gutxienez.*

4.- *Tasari dagokion zenbatekoa banku-helbideratze bidez ordainduko da, erabiltzaileek (edo, adingabeak direnean, haien guraso edo legezko zaintzaileek) eskaeran adierazitako kontu-zenbakian.*

Ordainketa bakarra egingo da eta ez da itzuliko programa hasi ondoren.

HOBARIAK:

1.- *Hobaria emango zaie, aurreko ataleko lehen puntuetan jasotako tasetarako, Udalak antolatzen dituen programa bakoitzean adingabe bat baino gehiago inskribatzen dituzten gurasoei edo adingabeen legezko zaindariei (adingabeek programa berean izena emanda egon beharko dute: Jolas Txokoak edo gaikako tailerrak). Hobaria emango zaie, halaber, familia ugarien titularrei.*

Familia ugariaren txartela aurkeztu beharko da izena emateko unean.

Hauek izango dira hobariarekin ordaindu beharreko tasak:

- *Jolas Txokoetan parte hartzeko, bi anai-arreba adingabe inskribatzeagatik: orduko 1,1 € adingabe bakoitzeko.*

- *Jolas Txokoetan parte hartzeko, hiru anai-arreba adingabe inskribatzeagatik edo familia ugariko kide izateagatik (zenbat adingabe inskribatzen diren kontuan izan gabe): orduko 1 € adingabe bakoitzeko.*
- *Gaikako tailerretan parte hartzeko, bi anai-arreba adingabe inskribatzeagatik: orduko 1,5 € adingabe bakoitzeko.*
- *Gaikako tailerretan parte hartzeko, hiru anai-arreba adingabe inskribatzeagatik edo familia ugariko kide izateagatik (zenbat adingabe inskribatzen diren kontuan izan gabe): orduko 1,4 € adingabe bakoitzeko.*

EZ ORDAINTZEA:

Tasa horiek ez ordaintzeagatik sortutako zorrak premiamendu-prozedura administratiboaren bidez eskatuko dira.

AZKEN XEDAPENA:

Kultur Arloak urtean zehar antolatutako Jolas Txokoetan eta haur eta gazteentzako gaikako tailerretan parte hartzeko zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen III. eranskin hau argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta hala egongo da aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte.

EGINBIDEA.-

Udal honek 2017ko aren (e)ko ohiko bilkuran onetsi zuen eranskin hau sartzea zerbitzu publikoen eta administrazio, kultura, kirol, gizarte, gizarte-ongizate eta pertsona eta ondasunen zaintza-zerbitzuak emateagatik eta kirol-instalazioak erabiltzeagatik tasak araupetzen dituen ordenantzaren. Ondoren, iragarki-taulan eta (e)ko aren (e)ko ALHAOn (. zk.) argitaratu zen 30 egunez”.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzeko 30 egun balioduneko epea irekitzea, erabakia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek aurkeztu ahal izango ditu bidezkotzat jotzen dituen alegazioak, eta Udalbatzak aztertuko ditu horiek, bidezkoa bada behin betiko onesteko. Hasierako onespeneraren inguruko alegaziorik aurkezten ez bada, hasiera batean onetsitako erabakia behin betikotzat jo eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

Hirugarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ordenantzaren aldaketa hauek ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzen denean sartuko dira indarrean.

- **Aztergaien zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, udalburuak proposatu du beste puntu bat sartzea aztergaien zerrendan, Eusko Jaurlaritzak Kataluniako Asanblea Nazionaleko eta Omnium Culturaleko buruen atxiloketa dela-eta onetsi duen adierazpenaren inguruan EH BILDUk aurkeztu duen idatziari buruzkoa. Aztergaien zerrendan sartzea proposatu da, eta gaiaren premia onetsi egin da, une honetan onestea funtsezkoa delako.**

Beste adierazpenik egin ez dutenez, aztergaien zerrendatik kanpoko puntu hau bertan sartzeko premia bozkatu da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute; hortaz, hurrengo puntua bozkatzeari ekin diote:

13.- EH BILDUK aurkeztutako mozioa, Katalunian egon diren atxiloketen harira.

Nerea andreak (BILDU) esan du adierazpen hau ezin zela utzi hurrengo hileko osoko bilkurarako, egun hauetan gertatu diren gertakari zehatzak direlako eta une honetan adierazpen bat egitea eskatzen dutelako. Gehitu du testu motza eta erraza dela, eta Eusko Legebiltzarreko hainbat indarren artean onetsia izan dela.

Iraida andreak (AIARA BATUZ) esan du, beren sorrera-irizpideak direla eta, bere taldea abstenitu egingo dela gai honen bozketan.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan eta bozketa egin da; emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: 8 (5 EAJ-PNV eta 3 BILDU)

Abstentzioak: 2 (AIARA BATUZ)

Udalak, gehiengo osoz, mozio hau onestea **ERABAKI DU**:

1.- Aiarako Udalak kezka eta erabateko gaitzespena adierazi nahi ditu Auzitegi Nazionalak Omnium Culturaleko buru Jordi Cuixart eta Kataluniako Asanblea Nazionaleo buru Jordi Sánchezi ezarritako baldintza gabeko espetxe zigorragatik, uste baitu horrek larriki urratzen dituela oinarritzko printzipio demokratikoak.

2.- Aiarako Udalak salatu egiten du Cuixart eta Sánchez arrazoi politikoengatik atxilotu eta espetxeratu izana.

3.- Aiarako Udalak babesa eta elkartasuna adierazi nahi die Cuixart eta Sánchezi, baita Kataluniako gizarte osoari ere, eta eskatzen du berehalakoan aska ditzatela biak.

4.- Aiarako Udalak Espainiako Estatuari eskatzen dio uko egiteko oinarritzko askatasunak zapaltzeko estrategia honi, demokraziaren oinarritzko printzipioen aurkakoa delako.

5.- Aiarako Udalak berresten du Kataluniak, Euskal Herriak eta munduko herri guztiek bezala, bere etorkizuna erabakitzeko legitimitate politikoa daukala, eta mugak herritarrek adierazi eta demokratikoki aukeratutakoak izan behar direla.

14.- Alkatetza-dekretuen berri ematea:

- **Erref.- 414/17.- M.P.B.A.-** Udal-lizentzia ematea Lantenon dagoen partzela bat bereizteko eta horizontalean zatitzeko.
- **Erref.- 415/17.- M.A.G., D.A.A.ren ordez.-** Udal-lizentzia ematea Kexaan dauden partzela batzuk bereizteko.
- **Erref.- 416.- A.G.Z.-** Obrarako udal-lizentzia ematea Beotegin dagoen eraikin bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref.- 417.-** Onestea F/2017/11 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.

- **Erref.- 418/17.-** Kontratu txikia esleitzea, udal-igerilekuetako hondartza-eremua iragazgaizteko obraren proiektua idazteko, obra zuzentzeko eta obrako segurtasuna eta osasuna koordinatzeko.
- **Erref.- 419/17.- A.U.Z.-** Izorian dagoen nekazaritza-txabola baten jarduera onartzea.
- **Erref.- 420/17.- A.U.Z.-** Nekazaritza eta abeltzaintzako txabola bat lehenengoz okupatzeko lizentzia ematea eta hondakinak kudeatzeagatik jarritako fidantza itzultzea.
- **Erref.- 421/17.-** Diru-laguntza eskatzea Arabako Foru Aldundiari, 2018ko obra txikien programaren barruan.
- **Erref.- 422/17.- Olabazarreko Administrazio Batza.-** Olabazarretik La Cadenarako ezponda hobetzeko obretako hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko jarritako fidantza itzultzea.
- **Erref.- 423/17.-** Onestea 18 urtetik gorakoen eta 2017ko irailaren 1etik azaroaren 26ra bitartean adin-nagusitasunera helduko diren pertsonen zerrenda, Administrazio Batzei bidaltzeko, kontzejuetarako hauteskudeen deialdia egin dezaten.
- **Erref.- 424/17.-** Zereginak pilatu direla-eta lan-kontratudun langileak kontratatzea.
- **Erref.- 425/17.- Onestea zaborrak biltzeagatik tasaren 2017ko errolda.**
- **Erref.- 426/17.- Alkatearen 5-2017 kreditu gehigarriaren espedientea.**
- **Erref.- 427/17.- P.J.G.G.-** Administrazio-espediente bat jendaurrean ikusgai jartzeko baimena ematea.
- **Erref.- 428/17.- Menoioko Administrazio Batza.-** Fidantza eskatzea, Menoioko arazketa-sistema, saneamendu-sarea eta hobi septikorako sarbidea hobetzeko obretako eraikuntza- eta eraispent-hondakinak ondo kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 429/17.- Zorroza Gestión SL.-** Berriro egitea 172/17 Dekretuaren bidez eginiko errekerimendua.
- **Erref.- 430/17.- R.A.A.C.-** Hasiera ematea biztanleen udal-erroldan baja emateko espedienteari, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **Erref.- 431/17.- F.T.L.R.-** Hasiera ematea biztanleen erroldan ofizioz baja emateko espedienteari.
- **Rfa.- 432/17.- M.I.C.F.-** Obrak egiteko udal-lizentzia ematea, A-624tik Arespalditzan dagoen partzela bateraino behin-behineko sarbidea egiteko.
- **Erref.- 433/17.- J.A.B.C.-** Zereginak pilatu direla-eta aldi baterako lan-kontratua aldatzea.
- **Erref.- 434/17.- Zorroza Gestión SL-** Baimena eskatzea bere instalazioetan esploratzeko ikerketalanak egiteko.
- **Erref.- 435/17.- D.P.O.-** Luiaondoko partzela bateko jarduketan II. fasea gauzatzeko obraren proiektua idazteko zerbitzua esleitzea.
- **Erref.- 436/17.- Gorosti Neurketak SL.-** Administrazio-espediente bat jendaurrean ikusgai jartzeko baimena ematea.
- **Erref.- 437/17.- Naturgas Suministro GLP SAU.-** 2017ko hirugarren hiruhilekoan lurzorua okupatzeagatik tasa likidatzea.
- **Erref.- 438.- Naturgas Energía Distribución SAU.-** 2017ko hirugarren hiruhilekoan lurzorua okupatzeagatik tasa likidatzea.
- **Erref.- 439/17.- J.M.C.-** Maderas Zerrabe SLren izenean dagoen administrazio-espedientea jendaurrean ikusgai jartzeko baimena ematea.
- **Erref.- 440/17.- Alkatearen 6/2017 kreditu gehigarriaren espedientea.**
- **Erref. 441/17.- J.R.L.E.-** Aparkatzeko txartela ematea.
- **Erref.- 442/17.- J.C.O.V.-** Hasiera ematea biztanleen erroldan ofizioz baja emateko espedienteari.
- **Erref.- 443/17.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Bermea eskatzea Menagaraiko San Pedro eta Jauregi auzoen arteko bidean euste- eta babes-lanak egitetik sortzen diren hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 444/17.- Menoioko Administrazio Batza.-** Udal-lizentzia eta obrekin hasteko baimena ematea Menoioko arazketa-sistema, saneamendu-sarea eta hobi septikorako sarbidea hobetzeko.

- **Erref.- 445/17.- EPTISA CINSA, Ingeniería y Calidad SA.-** Zorroza Gestion SL dagoen partzelako lurraren afekzioa ikertzeko zerbitzuaren kontratua esleitzea.
- **Erref.- 446/17.- J.B.A.A.-** Baimena ematea eskatutako informazio publikoa eskuratzeko.
- **Erref.- 447/17.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Obrekin hasteko udal-baimena ematea, Menagaraiko San Pedro eta Jauregi auzoen arteko bidean euste- eta babes-lanak egiteko.
- **Erref.- 448/17.- Arespalditzako Administrazio Batza.-** Fidantza eskatzea hilerriko nitxoan lauzak estaltzeko obretan sortzen diren eraikuntza- eta eraispén-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 449/17.- Autocares Cuadra SA.-** 2017-2018 ikasturtean Etxaurren Ikastolako garraio-zerbitzua emateko baimena ematea.
- **Erref.- 450/17.- LIZELAN SL.-** 2014. eta 2015. urteetan Aiara udalerriko bideak eta errepede nagusietarako loturak garbitzeko zerbitzuen kontratuko fidantza itzultzea.
- **Erref.- 451/17.- M.C.Z.L.-** Fidantza eskatzea, Lantenoko etxebizitza baten estalkia birgaitzeko obran sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 452/17.- Arespalditzako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, hilerriko nitxoan lauzak estaltzeko.
- **Erref.- 453/17.- Agiñagako Administrazio Batza.-** Obrei hasiera emateko udal-baimena ematea, Agiñagako hondakin-urak arazteko sistema aldatzeko obrak egiteko.
- **Erref.- 454/17.- J.M.R., M.B.O.L.ren ordez.-** Eskatutako obrarako lizentzia ukatzea.
- **Erref.- 455/17.- D.J.A.T.-** Menagarain dagoen etxebizitza baten teilatua konpontzeko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.
- **Erref.- 456/17.-** Alkatearen eskuduntzak eskuordetzea, ezkontza zibila egiteko.
- **Erref.- 457.- M.C.Z.L.-** Obrarako udal-lizentzia eta obrekin hasteko baimena ematea, Lantenon dagoen etxebizitza baten estalkia birgaitzeko.
- **Erref.- 458/17.- CAMARA SA.-** Fasea gauzatzeko obraren kontratu txikia esleitzea.
- **Erref.- 459/17.- Pilbacken SL.-** Agiri gehiago eskatzea, obrarako lizentziaren espedientearen harira.

Bertaratuak alkatetza-dekretuen jakitun geratu dira.

15.- Eskaerak eta galderak.

- Lauren jaunak (BILDU) galdetu du ea zein den Aiaraturen egoera, ea likidatu den.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) ezetz erantzun dio; batzarrak duela horretarako eskumena eta oraindik ez dela egin. Gaiari buruzko hausnarketa egin da, baina oraindik ez da ezer erabaki.

Lauren jaunak (BILDU) esan du Aiaraturek ez duela kohesiorik sortzen, ernegazioa baizik. Ez du sorreran zuen helburua betetzen.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) aipatu du inork ere ez duela ezer egin Aiaraturek ondo funtzionatzeko. Aiaratureko Gobernu Batzordea biltzeko deialdia egingo da eta batzarrera igorriko da Aiarako Kuadrilla sustatzeko lanean parte hartzeko proposamena, baina markari bere horretan eutsiko zaio, dagoeneko sortuta baitago.

Lauren jaunak (BILDU) esan du garrantzitsua litzatekeela Aiarako Kuadrillako lanpostu-zerrenda egitea, behar berriei erantzuteko.

- Nerea andreak (BILDU) aipatu du, Luiaondoko Gaztegunearen gaiaren harira, aurreko batzordean ez zela jarraibiderik eman.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio datorren batzordean aipatuko dutela, enpresa baten proposamenarekin batera.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilkura bukatutzat eman du arratsaldeko zortziak direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezzen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamazazpiko urriaren hemeretziaren.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: Naiara Lazpita Marcos



ANEXO I

DECLARACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA PARA LA ADECUADA GESTIÓN DE LOS RECURSOS DE SALUD MENTAL EN LA CUADRILLA DE AYALA, PROPUESTA POR ASASAM.

Requerimos que en el proceso de reestructuración de los Servicios Sociales, que se está llevando a cabo, se garanticen los recursos residenciales, centro psicosocial, programas de intervención psicoeducativa, intervención comunitaria, centro ocupacional, programas de inserción sociolaboral, etc... necesarios para favorecer la recuperación y mejorar la calidad de vida de las personas con enfermedad mental de la Cuadrilla de Ayala.

Es necesario que las Instituciones Alavesas garanticen a todas las personas con enfermedad mental de la Cuadrilla de Ayala una atención digna y de calidad, en su entorno. Para ello, en la actualidad, es necesario que:

1. Se creen nuevos recursos residenciales para personas con enfermedad mental, en el Valle de Ayala.
2. Se garantice el mantenimiento del Servicio de Centro Psicosocial, que da atención a las personas con enfermedad mental de la zona.
3. Se lleguen a acuerdos entre la Diputación Foral de Álava y la Diputación Foral de Bizkaia por los cuales personas con enfermedad mental de Bizkaia puedan acceder a recursos de Álava, ubicados en Ayala.



ANEXO II



MOCIÓN EN CONTRA DEL INCREMENTO DE LA TASA DE VERTIDO DE RESIDUOS EN LA PLANTA TMB DE GASTEIZ

El Gobierno Municipal de Gasteiz del PNV con el apoyo del Partido Popular, sin tener en cuenta al resto de Entidades de Araba, les carga con una buena parte de los costos de explotación de la fracasada planta de TMB, al resto de los pueblos de Araba aumentando la tasa de vertido en un 20%. Lo hacen cuando únicamente el 28% de los residuos que se generan en Araba proceden de las Cuadrillas y Consorcios ajenos a Vitoria-Gasteiz.

El PNV y el PP pretenden de esta manera, absolutamente injusta, lograr un aumento de recaudación de sus arcas municipales a costa del esfuerzo de los y las alavesas del resto del territorio cuando en su municipio plantean medidas fiscales regresivas otorgando, por ejemplo, beneficios fiscales a las empresas a través de la aplicación de bonificaciones en el Impuesto sobre las Actividades Económicas.

Además, con esta medida, el PNV y el PP se encargan definitivamente de echar al traste la propuesta de gestión de las basuras de Diputación contenido en el Plan de Prevención y Gestión de Residuos Urbanos de Araba (2017-2030), donde se contemplaba la opción de crear un consorcio de basuras único para toda la provincia, integrado por la Diputación, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y las Cuadrillas y Consorcios de basuras de Araba.

Las cuadrillas y consorcios ya advirtieron anteriormente que si se producían estas medidas de forma unilateral y sin contar con ellos, analizarían seriamente descartar la opción de trasladar sus residuos a Gasteiz buscando otras alternativas a todas luces más equilibradas y con mejores ratios en gestión de residuos.

Cabe recordar que esta planta de TMB es una infraestructura, explotada por una contrata concesionaria hasta el año 2030, que está sobredimensionada y es económica y medioambientalmente insostenible tanto respecto a la gestión como a resultados. Un lastre para el territorio, consecuencia de un modelo de gestión de carácter especulativo y evidentemente fracasado.

ehbildu

Por todo ello, EH Bildu Aiara presenta la siguiente moción para su debate y aprobación en Pleno:


1.- El Pleno del Ayuntamiento de Aiara denuncia la decisión del Gobierno Municipal de Vitoria-Gasteiz de incrementar la tasa de vertido de residuos en un 20% en la Planta de TMB y la pasividad de la Diputación Foral de Araba ante esta situación de indefensión que sufren el resto de Cuadrillas de Araba.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Aiara insta al Gobierno Municipal de Vitoria-Gasteiz a retirar el incremento la tasa de vertido de residuos en un 20% en la Planta de TMB.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Aiara acuerda realizar las alegaciones pertinentes, en el plazo habilitado para ello, con el objeto de que Gobierno Municipal de Vitoria-Gasteiz retire el incremento la tasa de vertido de residuos en un 20% en la Planta de TMB.

4.- El Pleno del Ayuntamiento de Aiara enviará este acuerdo al Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, al Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo de la Diputación Foral de Araba y a las Juntas Generales de Araba.

Fd. Esteban Hernando Landa
Grupo Municipal de ehbildu



4-10-2014